GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín/aldizkaria

# berriak

OCTUBRE 2009 | 2009ko URRIA

Nº 183 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | Fax: 94 421 93 84

gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com



## Voluntariado de Gorabide

## ¡La pieza que falta eres tú!

## Gorabideko boluntariotza

## Falta zaiguna ZU zara

# Gracias al voluntariado

***Muchas de las actividades de ocio y tiempo libre de Gorabide son posibles por la implicación desinteresada de este colectivo, tan importante como necesario***

LECTURA FÁCIL

El voluntariado es muy importante para poder organizar actividades de tiempo libre. Gorabide, las personas usuarias y sus familias tienen mucho que agradecer a ese colectivo. Este año, se ha interesado más gente en participar, y el verano ha sido un éxito. Ahora, es necesario mantener esa implicación en las actividades de invierno.



Desde el inicio de la historia de Gorabide, la importancia del voluntariado ha sido enorme. Año tras año, la implicación de muchísima gente ha hecho posible que personas con discapacidad intelectual puedan disfrutar de un ocio normalizado. De hecho, en lo que llevamos de 2009, se han interesado muchas más personas que otros años en compartir ratos de ocio con usuarios y usuarias de nuestro Servicio de Tiempo Libre.

Por eso, la última campaña de voluntariado, además de buscar nuevas colaboraciones, quería reconocer el valor de quienes apoyan o han apoyado en sus actividades de ocio a las personas usuarias de Gorabide. En palabras del presidente, Víctor Iturburu, *"son una figura clave; tanto por su esfuerzo e implicación, como por el valor que aportan al establecer relaciones personales que sirven de ejemplo de la verdadera integración"*.

Una importancia que corrobora Amaya Zamácola, madre de una usuaria del club de fin de semana de Busturialdea: *"les tratan siempre muy bien y les dan toda la atención necesaria"*. Aunque Victor Díez, usuario del club de Barakaldo, va más allá: *"Algunos monitores son ya amigos íntimos"*.

## Necesidades para invierno

Si para las actividades de verano las colaboraciones han copado la demanda de monitores y monitoras, de cara al invierno es necesario contar








con 242 personas que quieran participar y dinamizar los clubes de tiempo libre, salidas de fin de semana, actividades deportivas... Aún quedan plazas sin cubrir, sobre todo en domingos, y en las zonas de Durango, Ermua y Gernika.











# Eskerrak boluntarioei

## *Gorabideko aisiako eta astialdiko ekintzetako asko boluntarioen eskuzabaltasunari esker egiten dira; haien parte hartzea garrantzitsua bezain beharrezkoa da*

Gorabideren hastapenetatik, boluntarioek garrantzi itzela izan dute. Urtean-urtean, hainbat eta hainbat lagunen parte hartzeari esker, adimen ezintasuna duten pertsonek aisia modu normalean gozatzeko aukera izan dute. 2009an, esaterako, aurreko urteetan baino askoz jende gehiagok erakutsi du gure Astialdiko Zerbitzuko erabiltzaileekin aisialdia konpartitzeko gogoa.

Horregatik, boluntariotzako azken kanpainak, lankide gehiago bilatzeaz gain, Gorabideko erabiltzaileei aisiako jardueretan laguntzen dieten pertsonen balioa aitortu gura izan du. Víctor Iturburu presidentearen hitzetan, *"funtsezkoak dira; bai euren ahalegin eta inplikazioagatik, bai benetako integrazioaren adibide diren harremanak ezartzen dituztelako"*.

Busturialdeko asteburuetako klubeko erabiltzaile baten amak ere, Amaya Zamacolak, haien balioa azpimarratu du: *"beti tratatzen dituzte oso ondo eta behar duten arreta guztia ematen diete"*. Eta Victor Díez, Barakaldoko klubeko erabiltzailea, harago joan da: *"Monitore batzuk lagun minak dira"*.

### Negurako beharrizanak

Udako jardueretarako lankidetzek ederto ase dute monitore eskaera eta, orain, neguari begira, 242 lagun behar dira astialdiko klubetan parte hartzeko eta asteburuetako irteerak, kirol ekintzak eta abar dinamizatzeko. Oraindik daude hutsuneak, batez ere domeketan eta Durangon, Ermuan eta Gernikan.

IRAKURKETA ERRAZA

Boluntarioen lana garrantzi handikoa da astialdiko ekintzak antolatu ahal izateko. Gorabidek, erabiltzaileek eta haien familiek zer eskerrak eman daukate. Aurten jende gehiagok erakutsi du parte hartzeko interesa eta uda arrakastatsua izan da. Orain, parte hartze horri eutsi egin behar zaio neguko ekintzetan.

# El Servicio de Tiempo Libre estrena blog

***El nuevo espacio en internet pretende ser una ventana dinámica, interactiva y abierta a la participación, tanto de las personas usuarias como de voluntarios y voluntarias***

El Servicio de Tiempo Libre de Gorabide, con la intención de estar cada vez más cerca de quienes apoyan a las personas con discapacidad intelectual en su integración y para que puedan disfrutar de un ocio adaptado a sus necesidades, cuenta desde este mes con un blog en internet.

Este tipo de espacios suelen recopilar textos o artículos escritos por una o varias personas, y quienes los leen pueden escribir sus comentarios y recibir respuesta. Así, se establece un diálogo público, que puede servir de ayuda a otras personas que tengan la misma inquietud.

Esto, aplicado al Servicio de Tiempo Libre, supondrá que se irán incluyendo los avisos más importantes del servicio, resúmenes de actividades, fotografías de los diferentes grupos, etc.

### Espacio interactivo

Toda la información del blog podrá ser comentada tanto por las personas que forman parte del voluntariado de Gorabide como por aquellas que quieren informarse sobre esta posibilidad, o por las personas usuarias de este servicio.

De esta manera, se generará información adicional que podrá ser consultada por cualquiera que acceda al blog en cualquier momento.

Puedes verlo en: **www.tiempolibre-gorabide.blogspot.com**.




www.tiempolibre-gorabide.blogspot.com

# Astialdiko Zerbitzua bloga estreinatu du

***Interneteko gune berri honek leiho dinamiko eta interaktiboa izan nahi du, erabiltzaileek eta boluntarioek parte har dezaten***

Gorabideko Astialdiko Zerbitzuak blog bat sortu du Interneten, adimen urritasuna duten pertsonei gizarteratzen eta euren beharrizanetara egokitutako aisiaz gozatzen laguntzen dietenengandik hurbilago egoteko asmoz.

Honelako guneek lagun batek edo batzuek idatzitako testuak edo artikuluak bildu ohi dituzte eta irakurleek, nahi izanez gero, komentarioak egin ditzakete eta erantzuna jaso. Hartara, jendaurreko elkarrizketa bat sortzen da eta lagungarri gerta dakieke kezka edo interes berdina duten pertsonei.

Ideia hori Astialdiko Zerbitzura ekarrita, blogean zerbitzuaren iragarpen eta ohar garrantzitsuak, ekintzen laburpenak, taldeen argazkiak eta abar jarriko dira.

### Gune interaktiboa

Blogeko informazio guztiari komentarioak egin diezazkiokete Gorabideko boluntarioek, boluntario izateko informazioa nahi dutenek eta zerbitzuaren erabiltzaileek.

Hala, informazio gehiago sortuko da eta blogean sartzen den edonork kontsultatu ahal izango du.

Blogaren helbidea: **www.tiempolibre-gorabide.blogspot.com.**

LECTURA FÁCIL

El Servicio de Tiempo Libre tiene un blog en internet. La información se irá actualizando, y será posible hacer comentarios.

IRAKURKETA ERRAZA

Astialdiko Zerbitzuak blog bat dauka interneten. Informazioa aldian-aldian eguneratuko da eta komentarioak egin ahal izango dira.

# Atxurizubi eguneko zentroak Mungiako Zentzuzko Mugikortasunaren Astearekin bat egin du

**Hiru egunetan, Mungiako eguneko zentroko erabiltzaileek mugikortasunarekin zerikusia duten ekintzak egin dituzte, bertako Udalaren proposamenari esker.**

IRAKURKETA ERRAZA

Mungiako eguneko zentroko erabiltzaileek Mugikortasunaren Astean parte hartu dute. Irailaren 28an mugikortasun ariketak eginez; urriaren 1ean dokumental bat ikusiz eta collage bat eginez; eta urriaren 2an plazako oztopo arkitektonikoak aztertuz.

Mungiako Udaleko Tokiko Agendaren arloak Zentzuzko Mugikortasunaren Astean esku hartzea proposatu die lehenengoz Atxurizubi eguneko zentroko erabiltzaileei, euren eguneroko inguruan parte har dezaten bultzatzeko.

Hiru egunetarako jarduerak antolatzea erabaki da: irailaren 28an eta urriaren 1ean eta 2an. Denetan ere Tokiko Agendako langileen laguntzaz.

Lehenengo egunean, Mugire Txokoan, Atxurizubiko eguneko zentroko erabiltzaileen mugikortasuna deskribatzen duten ariketak egin dira.

Bigarren egunean, eguneko zentroan bertan, *Líneas discontinuas* izenburuko bide hezkuntzako dokumentala ikusi dute, baita gai horri buruzko collage bat egin ere ebakigarri, argazki eta margoekin.

Eta hirugarren egunean, adimen urritasuna dutenek Mungiako plazara joaten direnean topatzen dituzten oztopo arkitektonikoei erreparatu eta argazkiak egin dizkiete.



# El centro de día Atxurizubi se suma a la Semana de la Movilidad Sostenible de Mungia

**Durante tres días, las personas usuarias del centro de día de Mungia realizan actividades relacionadas con la movilidad, gracias a la propuesta del Ayuntamiento de la localidad.**

LECTURA FÁCIL

Las personas usuarias del centro de día de Mungia participan en la Semana de la Movilidad. El 28 de septiembre con ejercicios de movilidad; el 1 de octubre viendo un documental y haciendo un *collage*; y el 2 de octubre analizando las barreras arquitectónicas del mercado.

El área de Agenda Local del Ayuntamiento de Mungia ha propuesto a las personas usuarias del centro de día Atxurizubi la posibilidad de tomar parte en la Semana de la Movilidad Sostenible, para fomentar la participación en el entorno por el que se desenvuelven habitualmente.

En este primer año, se ha decidido conjuntamente organizar tres jornadas de actividades, el 28 de septiembre, el 1 y el 2 de octubre. En todos los casos, con apoyo de personal de Agenda Local.

El primer día, en el Txoko Mugire, con actividades centradas en diferentes ejercicios que describan la movilidad de las personas usuarias del centro de día Atxurizubi.

El segundo día, en el interior del propio centro de día, con la proyección de un documental de educación vial titulado *Líneas discontinuas*, y la elaboración de un *collage* sobre el tema, con recortables, fotografías y pinturas.

Y el tercer día, mostrando y fotografiando las barreras arquitectónicas que las personas con discapacidad intelectual suelen encontrar en su visita habitual al mercado de Mungia.

# Los primeros avances prácticos y el futuro del Proyecto para el Desarrollo de la Ética en Gorabide se presentan a finales de mes en el IX Congreso Nacional de Bioética




Gorabide ha sido seleccionada para presentar el estado actual del proyecto de desarrollo de la ética en la organización, en el IX Congreso Nacional de Bioética que se celebra del 22 al 24 de octubre, en Murcia, bajo el lema *La bioética como motor de transformación*. Será en formato póster y con una breve presentación, dentro del grupo temático de experiencias.

El cartel repasa someramente el porqué de un proyecto de ética en una asociación como Gorabide, sus objetivos, fases, primeros avances y pasos de futuro. De la aplicación práctica del proyecto, resume lo más destacado de la reelaboración de la Carta de Derechos y Deberes de las Personas Usuarias, y de la creación de un protocolo de sujeción.

Además de estar accesible durante el congreso, el póster será explicado, en una breve presentación, por Porfi Hernández, psiquiatra de Gorabide, y Tania Pereda, responsable del Servicio de Formación Familiar y Participación.

LECTURA FÁCIL

Porfi Hernandez y Tania Pereda van a participar en un congreso de bioética en Murcia. Presentarán un póster donde se explica qué se ha hecho hasta ahora en el proyecto de la ética en Gorabide.

IRAKURKETA ERRAZA

Porfi Hernándezek eta Tania Peredak bioetikako biltzar batean parte hartuko dute Murtzian. Poster bat aurkeztuko dute, Gorabideko etika proiektuan orain arte zer egin den azaltzeko.

# Gorabiden Etika garatzeko Proiektuaren aurrerapausoak eta etorkizuna aurkeztuko dira Bioetikako IX. Biltzar Nazionalean

Urriaren 22tik 24ra bitartean, Murtzian, Bioetikako IX. Biltzar Nazionala egingo da Bioetika aldaketaren eragile izenburupean eta Gorabide hautatua izan da bertan etika garatzeko proiektua zertan den erakusteko. Poster erara eta aurkezpen labur baten bitartez emango da egitasmoaren berri, esperientzien taldearen barruan.

Gorabideren moduko elkarte batek etika proiektu bati ekiteko arrazoiak, helburuak, lehenengo aurrerapausoak eta etorkizunean eman beharrekoak azaltzen ditu labur-labur. Proiektuaren aplikazio praktikoari dagokionez, Gorabideko Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren Gutuna berritzeko eta erabiltzaileak lotzeko protokoloa sortzeko ahaleginak laburbiltzen ditu.

Posterra Biltzarrean ikusgai egoteaz gain, Porfi Hernández Gorabideko psikiatrak eta Tania Pereda Familien Prestakuntza eta Partaidetza ren arduradunak aurkezpen labur batean azalduko dute.



# Vuelve la jornada de voluntariado de Iberdrola

> LECTURA FÁCIL
> Iberdrola y Tiempo Libre han organizado una jornada de actividades el sábado 24 de octubre en el Instituto Central de Bilbao.

El sábado 24 de octubre se celebrará el V Día del Voluntariado de Iberdrola, en el que miembros de la plantilla de la entidad energética pasan parte de su tiempo libre con las personas con discapacidad intelectual que hacen uso de los servicios de Gorabide. La jornada tendrá lugar, en el  patio del Instituto Miguel de Unamuno (el Central), a partir de las diez de la mañana.

### Más de cien personas

Más de cien participantes, entre personas usuarias del Servicio de Tiempo Libre de Gorabide y trabajadores y trabajadoras de Iberdrola y sus familiares, jugarán a baloncesto, al futbolín, a la rana, a juegos de mesa, pintarán, bailarán y cantarán en un karaoke.

Al final de la mañana, habrá entrega de premios. Pero, en realidad, habrá ganado la diversión, la participación y la integración.

# Iberdrolako boluntarioen eguna berriro ere

Urriaren 24an, Iberdrolako Boluntarioen V. Eguna ospatuko da. Egun horretan, energia arloko erakunde horretako langileek euren astialdiaren zati bat ematen dute Gorabideko zerbitzuen erabiltzaile diren adimen urriko pertsonekin. Jardunaldia Miguel Unamuno Institutuko jolastokian izango da (Institutu zentralean), goizeko hamarretatik aurrera.

Gorabideko Astialdiko Zerbitzuko erabiltzaileak eta langileak eta Iberdrolako langileak eta haien senideak batuta, ehun lagunetik gora elkartuko dira saskibaloian, igel jokoan eta mahai jokoetan olgetako, pintatzeko, karaokean kantatzeko eta dantzan egiteko.

Goiz akaberan, sariak emango zaizkie jokoetan ondoen moldatu direnei. Baina, benetan ondo pasatzen, parte hartzen eta integratzen izango gara irabazle.

> IRAKURKETA ERRAZA
> Iberdrolak eta Astialdiko Zerbitzuak ekintzen jardunaldi bat antolatu dute urriaren 24rako, Bilboko Institutu Zentralean.

## LABURRAK BREVES

### Futubide: 15 años de voluntariado

El 16 de septiembre, Futubide (Fundación Tutelar Gorabide) celebró el 15º aniversario de su programa de voluntariado, que mejora el desarrollo personal y afectivo de las personas tuteladas. En un acto celebrado en el Guggenheim, reconoció, agradeció y premió al voluntariado, especialmente a las 17 personas que son voluntarias desde 1994.

### Futubide: 15 urte boluntario lanean

Irailaren 16an, Futubidek (Gorabide tutoretza erakundea) tutoretzapeko pertsonen garapen pertsonal eta afektiboa hobetzeko hain mesedegarria den boluntariotza programaren 16. urteurrena ospatu zuen. Guggenheimen egindako ekitaldian, boluntarioen lana aitortu, eskertu eta saritu zuen, bereziki 1994tik boluntario diren 17 lagunena.

### Plan foral para definir nuevas actuaciones

El Departamento Social de la Diputación Foral de Bizkaia ha iniciado un proceso para diseñar el Plan Marco 2010-2013 que oriente las estrategias para conseguir más y mejores apoyos que potencien la autonomía de las personas con discapacidad intelectual y sus familias.

### Ekintza berriak definitzeko foru plana

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak 2010-2013 Plan Marko diseinatzeko prozesuari ekin dio, adimen ezintasuna duten pertsonen eta haien familien autonomia sustatzeko laguntza gehiago eta hobeak lortzeko estrategiak bideratzeko.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, contribuyendo así a la mejora de su calidad de vida y a la promoción de una sociedad más justa y cohesionada en su diversidad.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, adimen urritasuna duten bizkaitarrei eta haien familiei laguntzera bideratua, bizi kalitate hobea izan dezaten eta gizartea, bere aniztasunaren barruan, zuzenagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko.



## Estrenos de cine en Derio
## Primerako estrenaldiak Derion

El Ayuntamiento de Derio ha ofrecido la sala de cine municipal Gurea Aretoa para que, un viernes al mes, los grupos del Servicio de Tiempo Libre de Gorabide puedan ver gratis una película de estreno. El acuerdo comienza este mes de octubre y tiene un año de duración, que se prorrogará si tiene éxito.

Derioko Udalak udaleko Gurea Aretoa zinema aretoa eskaini du hilean bariku baten Gorabideko Astialdiko Zerbitzuko taldeek film berri bat doan ikusteko aukera izan dezaten. Hitzarmena urrian hasiko da urtebeterako eta luzatu egingo da arrakasta izanez gero.

# agenda




## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 14 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 6 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 5 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:00

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Días / Egunak** 6, 13, 20 y 27 — **Hora / Ordua** 20:00

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 28 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00

**SESTAO** — Comisión / Komisio
*La Galana, 20-bajo/etxabe - Sestao*
**Día / Eguna** 15 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 17:30




## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 27 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 19 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 15 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADULTOS / HELDUEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 29 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**HERMANOS / ANAI-ARREBAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 28 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES / GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 6 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**ADULTOS / HELDUAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 7 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

**NUEVOS / BERRIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 5 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:15